



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Cornelio «Putxaputxa»

Gurasoei askotan entzun izan dizkiet haurtzaroko kontuak, 30eko eta 40ko hamarkadakoak. Orduko umeen ametsen eta beldurren artean, go-goan dut behin baino gehiagotan aipatzen zutela Cornelio Putxaputxa. Herriko gizon bat zen, eta antza denez gurasoek haurrak beldurtzeko erabiltzen zuten: «Hau ez baduzu egiten Cornelio Putxaputxa etorriko da zu eramatera». Aspaldiko baliabide “pedagogiko” ezaguna.

Cornelio, bistan denez, pertsona normala zen. Gaur eguneko hizkera eufemistikoan dibertsitate funtzionala duela esango genuke, eta herriko San Andres egoitzan bizi zen. Hitz egiteko arazoren bat zuen, eta nolabaiteko onomatopeia bat ateratzen zitzaien: hortik gaitzizena. Bistan denez, 1940ko hamarkadan pertsonok ez zuten gaurko abegikortasunik aurkitzen gizartean, kontrara: jende askok gutxituen kontura barre eginda berdintzen zuen bere zorigaitz propioa. Kontuan hartu Hegoaldeaz ari naizela, Francisco Francoren diktadurapean bizi izan zen gizarteaz; testuinguru horretan bizimodua oso go-gorra zen –errepresioa, gosea, eskasia– eta horrelakoetan, tamalez, gizakiak askotan kontsolamendu lizun bat aurkitzen du besteen zorigaitzean.

Perbertsio hauek kenduta, esango nuke giza aberea oro har “humanoa-go” izan dela beti dibertsitate funtzionaldunekin. Baina kontuz, ez gaurko parametroetan: antropologo batzuen ustez, historiaurrean ohikoa baitzen zahar eta ezinduen eliminazioa. Izan ere, gizarte nomadetan –eta Euskal Herrian horrelakoak izan ginen, erromatartu arte– tribuarekin batera bidaiatu ezin dutenak tribua-

ren beraren etorkizuna baldintzatzen dutela onartzen da. Zirrara eragiten du benetan gure arbasoen aiton-amonetikiko agur zeremoniak irudikatzeak, eta haien azken une bakartiak gaueko sarraskizaleen aurrean; baina horrela omen zen. Horrelakoak omen ginen. Gerora, jada historian sarturik, grekoek Taigeto mendietan prozedura horiekin segitu zutela gauza jakina da; eta gure egunetik askoz ere hurbilago, alemaniar nazional-sozialistek eginkoak ere hor ditugu; gai irristakorra benetan.

Baina, oro har, esan dezakegu Europako joerak kontrako norabidea jarraitu duela: pertsona ezindua integratzea eta zaintzea. Atso-agureen proportzio gero eta handiagoa duen gure gizarte honek ekarri duen eredu da, diskutigarria nahi baduzue

(tribu nomada batek arbuiatuko luke) baina oso onartua dagoena, hein handi batean Arabia aldetik etorritako erlijioen eraginez –kristaua bereziki–.

Dena den, ni haurra nintzenean ere (duela 40 urte) orduko “subnormalak” –horrela esaten zitzairen, bai kaleko hizkeran, bai ofizialki– etxean egoten ziren, ia sekula kalera atera barik, eta aipatu ere ahopean aipatzen ziren. Tabua ziren, ezkutatzeko gauza lotsagarria. Egoerak ere ez zuen laguntzen: etxe gehienetan ez zen igo-gailurik, seme-alaba gehiago izaten ziren, dirulaguntza gutxiago... Erraztasun gutxi, dibertsitate funtzionaldunek bizitza duina izateko. Orduetik hona gauzak asko hobetu dira. Aprobetxa dezagun bada, denok *soylent green* jaten hasi aurretik! •

www.abante.eus



Dibertsitate funtzionala dutenen bizitza kalitatea hobetzea egungo jendartearen erronka da. GAUR8